

GAZTEDIA ZAARKERIAREN AURKA

L. M. Aranzeta

—Karmeldarra—

Ainbat mintzatu da gaurko gizonaren bizikeraz... Ainbat aburu eman dira... Eta ainbat auresan da beratzaz... Osoki, iguin ematen du guk, gizonok, Jaungoikoaren ezkukiak jakiteko dugun gogo itxusiak. Eta gaurko mundu ontan, dirudianez, denok dugu igarle izateko eskubidea; nai badugu gure ustea jaungoikoarendu egin genezake, edo ondorengo urrun edo gertu bat paren-parez munduari agertu eragin.

Aldi ontako krisisa gure gogokera artegak geiegi idealizatu du, eta ia izendatutzeak bakarrik atzera eragiten dio edonori; askoz geiago gazteoi. aundi-ustea gurenean edozer egiteko dugula.

Esango nuke aldi ontako krisisa deitzen dioten naaste den ori giza-diaren gogo-egokera bigatik bakarrik dala: Lenbizikoa, gogo-zaarkeria, ta bestea gaztedi berriaren bulzaka gogotsua, ludi guztia oiñarri gogor eta betirako izango litzakezen idea berrien gainean jarri naia.

Aurrenekoa, era guztietako pre-juizio eta garratz-aldiak osatutako aro naastuak antolatu du. Bai oinperatu ta etsi dituala zenbait kementsu aro orrek...! Bigarren konplejoa, ordea, gizaldi berri edo gaztetuak eratua da. Gazteak gertu daude norberekeri guztiak uzteko, azkencan udaberri loretsu bat iritxiko badute.

Etsita nago, gizona dala bakarrik

goibelkeria ta poza, gaztetasuna ta zaartasuna, egiten dituana, eta ez inguruko gauzak.

Gogo ta gorputza banatuta dabil, naiz-ta kidesan aundia izan batak besteakin. Baiña gogoia beti da gorputzaren goitik eta errez menperatzen du, ala ere noizbait gorputzak menperatzen du gogoia, au makal dagonean.

Orregatik, gaztetasunak eta gogo-zaarkeriak ederki bategiten dute gogo makal susmarietan; eta berdin zaartasunak ta gogo gazteak gizon baikor eta kementsuetan.

Aita Santuak berak, kristautasunaren itxaropen guztia gazteetan jarriaz, bera ere zaar-gazte bat zala esan zigun.

Gaurko gizadiaren egokerak berpizkunde bat bear duala argi degu, eta asi gera lenbiziko dizdirak ikusten... Berpizkunde au, inñolaz ere, Jaungoikoaren egikizuna izan bear du; baiña, uste det, gizonen bidez egin bearko duala, Gizon auek gogo gaztedunak izango dira, zaarkerian ez baitago piztuzerik. Gogo jausi batek here animako indarrak lotuak ditu. Bere garratz aldiak, eta prejuizio galantak eutsi egiten diote begitasunaren bultzakadei, eta

ito egiten ditu baikortasuna ta itxaropena. Auek, ordea, aurraperen eta garaipenaren iturriak dira.

Berpizkunde au adimenez baiño zuzenago, gogo on eta beroz eta norberaren eskeintza egitekoa da. Nainko da adimen erdixka bat indar oiek hibe zuzenetik eramateko.

Aldi ontan, bultzakada auek indartsu zuzentzen dira, gizon gogobero eta kemendunak geroago ta ugariago ditugula. Gizaldi berri onetzaz esaten zituan Pio XII'garrenak itz aiek: «Atsegiñez ikusten ditugu, udaberri ikusgarriaren iragarkin bezela datozen gogo-indar galantak».

Osoa zatiak egiten badute, esan genezake guztien krisisa bakoitzagandik asi bear dala sendatutzen. Onela gaur eguneko makalkeria eta munduaren larria jasotzea gaztedi berriaren lana da. Gaztedi baikor eta langille batek baiño ezin ditu berriz ekarri gizadiarengan, materialismoak ezkatatu nai izan ditun gizonaren gogo-balioak. Gizon bakoitzean berpiztu egin bear du, egingtaz, ia batera indarge ikusten degun Kristoren agindu arek: «Eman Kaiser'i Kaiser'ena eta Jaungoikoari Jaungoikoarena.